





AFRIKAKO


EKOSISTEMAK proiektua



DBHko 3. mailako **Plastika** arloa


AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| AURKIBIDEA | 1 |
| SARRERA | 2 |
| 1. PROIEKTUAREN SORRERA | 2 |
| 2. PROIEKTUAREN HELBURUA | 2 |
| 3. PROIEKTUA CURRICULUMEAN | 3 |
| HELBURU DIDAKTIKOAK | 3 |
| EDUKIAK | 4 |
| EBALUAZIOA | 6 |
| JARDUERAK | 10 |
| 4. PROIEKTUAREN HEDAPENA | 29 |
| 5. PROIEKTUAREN AURKEZPENA | 29 |



SARRERA

Afrika beti izan da Plastika arloan presente izan dugun gai bat. DBHko 3. eta 4. mailan landutako proiektuekin Plastika arlotik beti parte hartu izan dugu Boni Ofogoren bisitetan. 2009 – 2010 eta 2013 – 2014 ikasturteen artean, DBHko 3. mailan Natura Mugimenduan proiektua landu dugu, oinarrizko ikusizko baliabideak diren lerroak eta koloreak landuz.



2014 – 2015 ikasturtean **Afrikako maskarak** proiekturako sortutako horma – irudia

1. PROIEKTUAREN SORRERA

Aipatutako bi ideia horiek elkartuz sortu da **AFRIKAKO EKOSISTEMAK proiektua**. Alde batetik, Plastika arloko irakasleak egindako proposamena eta DBHrako berezia den Boni Ofogoren bisita egunarekin elkartzeko.

Gure helburua 2017ko abenduaren 20an Boni Ofogoren bisita jasotzen dugunean proiektuan landutakoari buruz egingo dugun erakusketan Boni Ofogoren bisita izatea da. Guretzako Afrikari buruz adierazten duguna Boni Ofogoren iritzia izatea garrantzitsua da.

2. PROIEKTUAREN HELBURUA

Gure helburua Afrikan dauden ekosistema desberdinak sailkatzea eta ekosistema bakoitzari buruz bi horma – irudi sortzea da. Horretarako talde bakoitza bi taldetan banatuko dugu talde bakoitzean landuko den ekosistemari buruz bi irudi handi sortzeko. Irudi handi hauek Ikasketa Kooperatiboaren egituretan antolatutako talde txikien irudiak elkartuz lortuko ditugu. (Metodologia atalean azalduta dago).

Proiektua lantzeko arloko wikiaren Proiektuak atalean orri bat sortu dut: <https://plastikagela.wikispaces.com/AFRIKAKo+EKOSISTEMAK>. Orri horretan proiektua lantzeko beharrezko informazioa agertzen da: edukiak, aurkezpenak, ebaluaziorako irizpideak eta azalpen desberdinak.

Wikiarekin batera, asteroko saioetan Showbie aplikazio erabiliko dugu, proiektuaren urratsak azalduz, wikirako estekarekin, osatu beharreko txostenen ereduarekin eta proiektuan zehar sortzen diren baliabideak txertatuz.

3. PROIEKTUA CURRICULUMEAN

HELBURU DIDAKTIKOAK

| |
|--|
| Proiektua (izena): AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| HELBURU DIDAKTIKOAK |
| 1. Arte-hizkuntzen oinarrizko teknikak eta baliabideak ondo ezagutzea eta erabiltzen jakitea, teknologia berriek sormen-lanetarako ematen dituzten aukera ugariak aprobetxatzea, teknologia horiek artelanak diseinatzeko eta garatzeko erabiltzea. |
| 2. Gure kulturen diseinuarekin, ikus-entzunezko euskarria duten hedabideekin, eta objektu nahiz formen adierazpen sistema teknikoekin lotutako ekoizpen artistiko estetikoaren gune eta esparruen berri jakitea, eta horien kode espezifikoak ondo ulertzea, mota horretako arte-adierazpenak kritikoki aztertzea eta espresio eta komunikazio baliabideak erabiltzeko. |
| 3. Emozioak, sentimenduak, bizipenak, ideiak eta natura ingurunearen espazio eta elementuak adierazteko balio duten obra artistiko estetikoak sortzea, eta horretan, komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoa eta auto-konfiantza aurrera egitea. |
| 5. Modu kolektiboan proiektu artistiko baten gaineko plangintza egitea, eta, gero, prozesu horri buruz gogoeta egitea, lortu nahi den horretan intentzioak, fase bakoitzaren berrikusketak eta emaitzen ebaluazio kritikoak duten garrantziaz ohartzeko, eta hori guztia dela eta, talde-lana arduraz, tolerantziaz eta besteen iritziekiko errespetuz egin beharra aintzat hartzea. |

EDUKIAK

| |
|---|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| EDUKIAK |
| Proiektua burutzeko urratsak: <ol style="list-style-type: none">1. Afrikako Natura eta ekosistemei buruz informazioa bilatu, aukeratu eta erregistratzea.2. Informazio hau ulertu, interpretatu eta ebaluatzea.3. Landutako informazioan oinarrituta, Afrikako Naturari buruz ikusizko proposamenak planifikatzea. Irudiotan LERROAK eta KOLOREAK bereziki landuko dira.4. Planifikatutako sormen prozesua gauzatzea Afrikako Naturari buruz irudien bitartez iritzia emanez.5. Sormen prozesuan zehar egindakoak ebaluatzea, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuz eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginez.6. Lortutako emaitzak erakustea eta mundura zabaltzea. |
| Afrikako ekosistema nagusiak: <ul style="list-style-type: none">• Sabana.• Basamortuak.• Oihanak.• Ibaiak eta deltak. Ekosistemaren ezaugarriak: <ul style="list-style-type: none">• Kokapen geografikoa.• Orografia.• Flora.• Fauna.• Klima, tenperatura eta hezetasuna. |
| Ikusizko baliabideak: <ol style="list-style-type: none">1. Lerro motak: zuzen horizontala, bertikala eta zehar eta lerro kurbatuak.2. Lerroen ezaugarriak: intentsitatea, zabalera eta kolorea.3. Lerroen bidezko esanahiak: armonia, kontrastea, lasaitasuna, mugimendua, norabidea eta abar.4. Kolore motak: hotzak, beroak eta neutroak.5. Koloreen bidezko esanahiak: armoniak eta kontrasteak.6. Konposaketa motak: simetria, asimetria, erritmoa eta bestelakoak.7. Konposaketaren bidezko esanahiak: armonia, kontrastea, lasaitasuna, mugimendua, norabidea eta abar. |

EDUKIAK (jarraipena)

Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK

EDUKIAK

Irudien azterketa egiten jakitea, aztertutako ikusizko baliabideak sailkatuz eta azalduz, irudiak adierazpen eta komunikazio baliabide bezala era egokian ulertzeko eta era kritikoan interpretatzeko.

Irudien azterketarako edukiak:

- Erabilitako ikusizko baliabideen sailkapena.
- Erabilitako ikusizko baliabide motak eta hauen ezaugarriak.
- Ikusizko baliabideen bitartez lortutako efektuak.
- Irudiaren mezua.
- Ikusizko baliabideak zer, nola eta zertarako erabili diren arrazoitzea.

Proiektua burutzeko Ikasketa kooperatiboaren egiturak aplikatzea, bai talde bakoitzaren barnean, bai talde guztien artean.

Irudien planifikazioa egiten jakitea, erabilitako ikusizko baliabideak sailkatuz eta azalduz norberaren irudiak sortzerakoan adierazpen eta komunikazio baliabide bezala era egokian erabiltzeko.

Irudien planifikaziorako edukiak:

- Irudiaren mezua eta efektuak.
- Erabilitako ikusizko baliabideen sailkapena, motak eta hauen ezaugarriak.
- Ikusizko baliabideak zer, nola eta zertarako erabili nahi diren arrazoitzea.

EBALUAZIOA

| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK | |
|--|---|
| EBALUAZIOA | |
| <p>Helburua: 1 Arte-hizkuntzen oinarrizko teknikak eta baliabideak ondo ezagutzea eta erabiltzen jakitea, teknologia berriek sormen-lanetarako ematen dituzten aukera ugariak aprobeztatzea, teknologia horiek artelanak diseinatzeko eta garatzeko erabiltzea.</p> | <p>Ebaluazio irizpidea eta adierazleak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Bilaketarako jarrera izatea, eta horretan, pertzepzioa, jakin-mina eta sentsibiltatea artikulatzea, erantzun tekniko eta formal egokiak emateko. <ul style="list-style-type: none"> • Loturak egiten ditu arte-ekoizpenen eta beren adierazpenerako eta/edo komunikaziorako xedeen artean. • Irudien pertzepzio-prozesuko elementuak eta faktoreak identifikatzen ditu. |
| <p>Helburua: 2 Gure kulturen diseinuarekin, ikus-entzunezko euskarria duten hedabideekin, eta objektu nahiz formen adierazpen sistema teknikoekin lotutako ekoizpen artistiko estetikoko gune eta esparruen berri jakitea, eta horien kode espezifikoak ondo ulertzea, mota horretako arte-adierazpenak kritikoki aztertzeke eta espresio eta komunikazio baliabideak erabiltzeke.</p> | <p>Ebaluazio irizpidea eta adierazleak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Bilaketarako jarrera izatea, eta horretan, pertzepzioa, jakin-mina eta sentsibiltatea artikulatzea, erantzun tekniko eta formal egokiak emateko. • Loturak egiten ditu arte-ekoizpenen eta beren adierazpenerako eta/edo komunikaziorako xedeen artean. • Irudien pertzepzio-prozesuko elementuak eta faktoreak identifikatzen ditu. 2. Arte-ekoizpen berean zenbait hizkuntzaren artean jazotzen diren interakzioei igartzeko gai izatea, eta aintzat hartzea hizkuntza horietako bakoitzak komunikazioari egiten dion ekarpena. • Artelanetan eta ikusizko kulturaren produktuetan hizkuntza askotarikoen baliabideak erabiltzeak sortzen dituen eraginak aztertzen ditu. 4. Arte-adierazpenen lan- eta aplikazio-eremuen bereizgarri eta desberdintasunak ulertzeke gai izatea, eta gaur egungo testuinguru ekonomiko eta teknologikoa aintzat hartuz interpretatzea horiek guztiak. • Badaki zer-nolako garrantzia eta protagonismoa duten euskarri teknologikoen egungo kultura-produkzioaren esparruetan. |

| | |
|--|---|
| <p>Helburua: 3 Emozioak, sentimenduak, bizipenak, ideiak eta natura ingurunekeo espazio eta elementuak adierazteko balio duten obra artistiko estetikoak sortzea, eta horretan, komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoan eta auto-konfiantzan aurrera egitea.</p> | <p>Ebaluazio irizpidea eta adierazleak</p> <p>5. Bere komunikazio-asmoekin bat datozen baliabide plastiko eta ikusizkoak erabiltzeko eta zenbait mezu sortzeko gai izatea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bere mezu propioak igortzeko, arrazoiz erabiltzen ditu elementu, prozedura eta baliabide plastiko eta ikusizkoak. • Komunikazio-xedera doitzen ditu sortzen dituen irudiak –bozetoak, apunteak, azterketak, etab.–. • Bere artelanei zentzua ematen dieten baliabide plastikoen eta ikusizkoen erabilera arrazoitzen du. |
| <p>Helburua: 5 Modu kolektiboan proiektu artistiko baten gaineko plangintza egitea, eta, gero, prozesu horri buruz gogoeta egitea, lortu nahi den horretan intentzioak, fase bakoitzaren berrikusketak eta emaitzen ebaluazio kritikoak duten garrantziaz ohartzeko, eta hori guztia dela eta, talde-lana arduraz, tolerantziaz eta besteen iritziekiko errespetuz egin beharra aintzat hartzea.</p> | <p>Ebaluazio irizpidea eta adierazleak</p> <p>6. Bere proiektu artistikoak egiten ari dela, zenbait soluzio eta estrategia bilatzeko gai izatea, eta horretan, aintzat hartzea kultura bisualak bere-bereak dituen arazo eta elementuak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Alternatibak bilatzen ditu bere adierazpeneko eta komunikazioko prozesuetan. • Arte bisualen baliabideak ikertzen ditu, behar bezala justifikatuta. • Arazoei aurre egitean, haiek ebazteko aukera asko hartzen ditu kontuan. • Bere lanetara eramaten ditu beste pertsona batzuek beren lanetan erabili dituzten soluzioak. <p>7. Egiten ari den proiektuaz gogoeta egiteko gai izatea, eta horretan, modu kontzientean parte hartzea taldean, bai lana antolatzen eta bai prozesuko urrats guztiak egiten.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Taldean parte hartzen du, besteren adierazpenak eta ekarpenak errespetatuta. • Bere gain hartzen du dagokion lana. • Antolamendu-estrategia egokiak erabiltzen ditu bere lan-prozesuetan eta aintzat hartzen du prozesuaren ebaluazioa. • Taldeko jardueretan eta lanetan laguntzen du, eta adostutako erabakiak iristen ahalegintzen da. |

Ebaluazioa egiteko erabiliko ditugun bestelako baliabideak:

Ikasleei ebaluazio txostenean azalduko zaizkien gaiak eta portzentajeak:

| | |
|---|-------------|
| DBHko 3. mailako Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza. 2017 – 2018 ikasturtea, 1. ebaluazioa. | Ehunekoak |
| PROIEKTUA | % 80 |
| 1. Afrikako Naturari buruzko proiektua: informazioa bilatu, aukeratu eta erregistratzea. Informazioa ulertu, interpretatu eta ebaluatzea. Landutako informazioan oinarrituta Afrikako Naturari buruz ikusizko proposamenak planifikatzea. | % 30 |
| 2. Aurrez planifikatutako sormen prozesua gauzatzea Afrikako Naturari buruz irudien bitartez iritzia emanez, sormen prozesuan zehar egindakoak ebaluatuz, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuz eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginez. | % 35 |
| 3. Taldean ikastea eta lan egitea, Ikasketa Kooperatiboaren egiturak ulertuz eta proiektuan aplikatuz, norberaren erantzukizunak onartuz eta denen artean erdietsi beharrekoetan elkarlanean arituz, eta pertsonen eta iritzien arteko aniztasunak dakarren aberastasuna aintzat hartuz. | % 35 |
| ZEHARKAKO GAITASUNAK | % 20 |
| Informazioa bilatu, aukeratu eta erregistratzea zenbait iturri erabiliz, informazio hau interpretatuz eta ebaluatuz gure ikusizko proposamenak planifikatzeko. | % 50 |
| Arte hizkuntzaren oinarrizko kodeak erabiltzea, ikusizko proposamenak diseinatu eta planifikatzean informazioa kudeatuz eta produkzio digitalak sortuz modu oso eta orekatuan irudien bitartez komunikatzeko. | % 50 |

Proiektuaren ebaluaziorako errubrika:

**DBHko 3. mailako Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza
2017 - 2018 ikasturtea**

1. PROIEKTUAREN EBALUAZIORAKO ERRUBRIKA

Taldea eta azpitaldea: _____

Izen - abizenak: _____

| | BIKAIN | OSO ONGI | ONGI | BIDEAN |
|---|--|---|---|---|
| Informazioa ulertu, interpretatu eta ebaluatzea. Showbieko 1. ariketa. | Galdera guztiak ongi erantzun dira eta zuzenketak kontuan izan dira. | Galdera gehienak ongi erantzun dira eta zuzenketak kontuan izan dira. | Galdera batzuk bakarrik ongi erantzun dira eta zuzenketak batzuk bakarrik kontuan izan dira. | Galdera gehienak ez dira ongi erantzun eta ez dira zuzenketak kontuan izan. |
| Irudia sortzeko proiektua planifikatzea. Showbieko 2. ariketa. | Planifikazioaren atal guztiak ongi proposatu dira eta ereduari jarraituz azaldu dira. | Planifikazioaren atal gehienak ongi proposatu dira eta ereduari jarraituz azaldu dira. | Planifikazioaren atal batzuk bakarrik proposatu dira eta ereduari erdizka jarraituz azaldu dira. | Planifikazioaren atal gehienak ez dira ongi erantzun eta ez zaio ereduari jarraitu. |
| Aurrez planifikatutako sormen prozesua gauzatzea. | Irudian aurrez planifikatutako atal guztiak islatzen dira eta irudiak bere mezua ongi adierazten du. | Irudian aurrez planifikatutako atal gehienak islatzen dira eta irudiak bere mezua ongi adierazten du. | Irudian aurrez planifikatutako atal batzuk bakarrik islatzen dira eta irudiak bere mezua erdizka adierazten du. | Irudian aurrez planifikatutako atal gehienak ez dira islatzen eta irudiak ez du bere mezua adierazten. |
| Taldean ikastea eta lan egitea. | Ikasleak bere ardurak eta funtzioak bikain bete ditu, lanerako urrats guztien epeak errespetatuz. | Ikasleak bere ardurak eta funtzioak oso ongi bete ditu, lanerako urrats guztien epeak errespetatuz. | Ikasleak bere ardurak eta funtzioak ongi bete ditu, lanerako urrats gehien epeak errespetatuz. | Ikasleak bere ardurak eta funtzioak erdizka bete ditu edo ez ditu lanerako urrats gehien epeak errespetatu. |

JARDUERAK

| |
|---|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 1. JARDUERA: proiektuaren AURKEZPENA egitea |
| Jardueran lortu beharreko helburua : <ul style="list-style-type: none">• Proiektua ikasleei aurkeztea eta hauek ongi ulertu eta bereganatzea.• Proiektuaren gaia aukeratu eta zehaztea. Proiektua egiteko ZER, NOLA eta ZERTARAKO planteamenduari jarraituko diogula azaldu nien: <ul style="list-style-type: none">• ZER: Afrikari buruzko irudiak egingo ditugu.• NOLA: lerroak eta koloreak erabiliz.• ZERTARAKO: Afrikako Naturari buruz dugun iritzia adierazteko. Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa : <p>Proiektuaren gaia zehaztea, Afrikan sailkatutako lau ekosistemetatik talde bakoitzak bat aukeratzea: basamortua, sabana, oihanak edo ibaiak eta deltak.</p> Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik: <p>Ikasleek gaiaren barnean euren gustukoa dena aukeratzeko ahalmena ematen bazaie, parte hartze horrek euren motibazioa handituko duela uste dut.</p> Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak): <p>Talde guztiak lau kideko taldeetan antolatuta daude. Talde osoaren erabakian lau kideko talde bakoitzak bere iritzia emango du, denon artean erabakitakoa lau kideko taldeen erabakietan oinarrituz.</p> Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak): <p>Ikasleei proiektua azaltzeko, plastikagela wikiko <i>Ikasleen lanak</i> atalean, duela ikasturte batzuetako ikasleek lerroak eta koloreak erabiliz egindako irudiak ikusi eta aztertuko ditugu. Ikusi eta aztertutako irudien gaiak sailkatu genituen baita.</p> Era horretako irudiak, lerroak eta koloreei garrantzi berezia emanez, izango dira Afrikako ekosistemak adierazteko landuko ditugunak.Irakasleak irudiak eta beharrezkoak proiektatuko ditu bere iPadean irudiak markatuz eta proiektzioan erakutsiz. Proiektorea eta pantaila. |

| |
|---|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 2. JARDUERA: aukeratutako ekosistemari buruz ikertzen 1 |
| Jardueran lortu beharreko helburua : Aukeratutako ekosistemari buruzko informazioa bilatzea: <ul style="list-style-type: none">• Ekosistemari buruzko informazio orokorra.• Ekosistemari buruzko irudiak. |
| Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa : Proiektua burutzeko 1. urratsarekin harremana duen jarduera da hau: <ol style="list-style-type: none">1. Afrikako Natura eta ekosistemei buruz informazioa bilatu, aukeratu eta erregistratzea. Ekosistemaren ezaugarriak: <ul style="list-style-type: none">• Kokapen geografikoa.• Orografia.• Flora.• Fauna.• Klima, tenperatura eta hezetasuna. |
| Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik: <ul style="list-style-type: none">• Proiektuan landuko dugun gaiaren oinarriak ikasleek eurek egindako ikerketan oinarrituko baita.• PBI metodologiaren urrats guztiak bezala, 1. urratsa lantzea erabat baliagarria eta beharrezkoa delako. |
| Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak): Lau kideko taldeetan egindako ikerketa, lan motak adostuz: <ul style="list-style-type: none">• Ekosistemari buruzko informazio orokorra.• Ekosistemari buruzko irudiak. |
| Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak): iPada: Safari aplikazioa eta wifirako konexioa. |

| |
|---|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 3. JARDUERA: proiektua Showbie aplikazioan azaltzen eta aukeratutako ekosistemari buruz ikertzen 2 |
| Jardueran lortu beharreko helburua : <ul style="list-style-type: none">• Showbie aplikazioan sortutako AFRIKAKO EKOSISTEMAK ikastaroa eta honen erabilera ikasleei azaltzea: proiektuaren urratsak, plastikagela wikirako estekak, ariketak, ebaluaziorako irizpideak, errubrika eta abar.• Showbieko 1. ariketa taldeka egitea. |
| Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa : Proiektua burutzeko 1. eta 2. urratsekin harremana duen jarduera da hau: <ol style="list-style-type: none">1. Afrikako Natura eta ekosistemei buruz informazioa bilatu, aukeratu eta erregistratzea.2. Informazioa ulertu, interpretatu eta ebaluatzea. Showbieko 1. ariketako galdera – erantzunen bitartez. |
| Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik: <ul style="list-style-type: none">• Proiektuan landuko dugun gaiaren oinarriak ikasleek eurek egindako ikerketan oinarrituko baita.• PBI metodologiaren 1. eta 2. urratsak landuko ditugulako. |
| Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak): Lau kideko taldeetan egindako ikerketa, lan desberdinak kideen artean adostuz: <ul style="list-style-type: none">• Ekosistemari buruz bilatu beharreko informazio desberdina lortzea.• Informazio iturriak erregistratzea.• Ekosistemari buruzko irudiak.• Ariketa Showbie aplikaziora bidaltzea (idazkaria). |
| Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak): iPada: Safari aplikazioa eta wifirako konexioa. Showbie aplikazioa. 1. ariketa egiteko, AFRIKAKO EKOSISTEMAREN EZAUGARRIAK dokumentua Showbie aplikazioan eta wikian dute ikasleek. Irakasleak irudiak eta beharrezkoak proiektatuko ditu bere iPadean irudiak markatuz eta proiektuaren erakutsiz. Proiektorea eta pantaila. |

| |
|--|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 4. JARDUERA: aukeratutako ekosistemari buruz ikertzen 3 |
| Jardueran lortu beharreko helburua : <ul style="list-style-type: none">• Showbieko 1. ariketaren zuzenketak jaso ondoren, ariketaren zuzenketak taldeka egitea eta Showbie aplikaziora bidaltzea.• Proiektuan burutuko dugun irudiaren mezua zehaztea. |
| Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa : Proiektua burutzeko 1., 2. eta 3. urratsekin harremana duen jarduera da hau: <ol style="list-style-type: none">1. Afrikako Natura eta ekosistemei buruz informazioa bilatu, aukeratu eta erregistratzea.2. Informazioa ulertu, interpretatu eta ebaluatzea. Showbieko 1. ariketako galdera – erantzunen bitartez.3. Landutako informazioan oinarrituta, Afrikako Naturari buruz ikusizko proposamenak planifikatzea. |
| Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik: <ul style="list-style-type: none">• Proiektuan landuko dugun irudiaren mezua eta esanahiaren oinarriak zehaztuko ditugulako.• PBI metodologiaren 3. urratsarekin hasiko baikara. |
| Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak): Lau kideko taldeetan egindako ikerketa, lan desberdinak kideen aretan adostuz: <ul style="list-style-type: none">• Ekosistemari buruz bilatu beharreko informazio desberdina lortzea.• Informazio iturriak erregistratzea.• Ekosistemari buruzko irudiak.• Ariketa Showbie aplikaziora bidaltzea (idazkaria). |
| Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak): iPada: Safari aplikazioa eta wifirako konexioa. Showbie aplikazioa. |

| |
|--|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 5. JARDUERA: ekosistemari buruzko irudiak egiten 1 |
| Jardueran lortu beharreko helburua : <ul style="list-style-type: none">• Orain arte gaiari buruz jaso dugun informazioa irudien bitartez adieraztea.• Komunikazio eta adierazpen helburuak irudien bitartez lantzea. |
| Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa : Proiektua burutzeko 3. eta 4. urratsekin harremana duen jarduera da hau: <ol style="list-style-type: none">3. Landutako informazioan oinarrituta, Afrikako Naturari buruz ikusizko proposamenak planifikatzea.4. Planifikatutako sormen prozesua gauzatzea Afrikako Naturari buruz irudien bitartez iritzia emanez. |
| Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik: <ul style="list-style-type: none">• Proiektuan sortuko dugun horma – irudirako hasierako froga eta zirriborroak marraztu eta margotuko ditugulako.• PBI metodologiaren 3. eta 4. urratsak landuko ditugulako. |
| Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak): Lau kideko taldeetan burutuko dugu jarduera. Ikasle bakoitzak taldean adostutako mezua adierazteko irudiak landuko ditu. Irudiaren atal desberdinak (orografia, flora, fauna eta abar) taldeka adostuko dute ikasleek. |
| Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak): iPada: Safari aplikazioa eta wifirako konexioa. PicsArt aplikazioa eta Adonit JotPro arkatx digitalak. Ikasgelako inprimagailua ikasleen irudi digitalak inprimatzeko. Orri zuriak, arkatzak eta koloretako margoak. |

| |
|---|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 6. JARDUERA: oinarrizko ikusizko baliabideak sailkatzen |
| Jardueran lortu beharreko helburua : |
| <ul style="list-style-type: none">• Irudiak egiteko erabiliko ditugun oinarrizko ikus – elementuen sailkapena eta eskema egitea: LERROAK eta KOLOREAK. |
| Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa : |
| Proiektua burutzeko 3. urratsarekin harremana duen jarduera da hau: |
| 3. Landutako informazioan oinarrituta, Afrikako Naturari buruz ikusizko proposamenak planifikatzea. Irudiotan LERROAK eta KOLOREAK bereziki landuko dira. |
| Ikusizko baliabideak: |
| <ol style="list-style-type: none">1. Lerro motak: zuzen horizontala, bertikala eta zeharra eta lerro kurbatuak.2. Lerroen ezaugarriak: intentsitatea, zabalera eta kolorea.3. Lerroen bidezko esanahiak: armonia, kontrastea, lasaitasuna, mugimendua, norabidea eta abar.4. Kolore motak: hotzak, beroak eta neutroak.5. Koloreen bidezko esanahiak: armoniak eta kontrasteak. |
| Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik: |
| <ul style="list-style-type: none">• Proiektuan egingo dugun irudia oinarrizko baliabide hauetan oinarrituko denez, hauek ongi erabiltzeko sailkapena ongi egitea beharrezkoa dugulako. |
| Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak): |
| Lau kideko taldeetan burutuko dugu jarduera. Taldea bitan bananduko dugu: bi kidek LERROAK aurkezpena ikusi eta ikasiko dute, eta beste biek KOLOREAK aurkezpena. Ondoren, bikote bakoitzak aztertutako gaia beste bikoteari azalduko dio, taldean bi gaiak ulertu eta menperatzen direla ziurtatu arte, hurrengo jardueran gai horiei buruzko azterketa egingo dugula jakinda. |
| Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak): |
| iPada: Safari aplikazioa eta wifirako konexioa. Aurkezpenak wikian eta Showbie aplikazioan estekatua ditugu: Lerroa, oinarrizko ikus – elementua eta Kolarearen teoria . |
| Orri zuriak eta arkatzak eskema idatziak egin nahi ezker edo iPadean eskemak egiteko egokia den edozein aplikazio. |

| |
|---|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 7. JARDUERA: oinarrizko ikusizko baliabideak aztertzen |
| Jardueran lortu beharreko helburua : |
| <ul style="list-style-type: none">• Irudien azterketa egiten jakitea, aztertutako ikusizko baliabideak (LERROAK eta KOLOREAK) sailkatuz eta azalduz, irudiak adierazpen eta komunikazio baliabide bezala era egokian ulertzeko eta era kritikoan interpretatzeko. |
| Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa : |
| Proiektua burutzeko 3. urratsarekin harremana duen jarduera da hau: |
| 3. Landutako informazioan oinarrituta, Afrikako Naturari buruz ikusizko proposamenak planifikatzea. Irudiotan LERROAK eta KOLOREAK bereziki landuko dira. |
| Irudien azterketarako edukiak: |
| <ul style="list-style-type: none">• Erabilitako ikusizko baliabideen sailkapena.• Erabilitako ikusizko baliabide motak eta hauen ezaugarriak.• Ikusizko baliabideen bitartez lortutako efektuak.• Irudiaren mezua.• Ikusizko baliabideak zer, nola eta zertarako erabili diren arrazoitzea. |
| Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik: |
| <ul style="list-style-type: none">• Proiektuan egingo dugun irudia oinarrizko baliabide hauetan oinarrituko denez, hauek ongi erabiltzeko azterketa ongi egitea beharrezkoa dugulako. |
| Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak): |
| Irudien azterketa talde osoko bileran egingo dugu, kide bakoitzak irudi bat edo azterketaren atal bat edo batzuk aztertuz, taldeko beste kideek ekarpenak egin ahal izanik eta azterketa denon artean osatuz. |
| Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak): |
| iPada: Safari aplikazioa eta wifirako konexioa. Aztertuko ditugun irudiak wikian eta Showbie aplikazioan estekatuta dugun Oinarrizko ikus – elementuen azterketa aurkezpenean daude. |
| Proiektorea eta pantaila. |
| Irakasleak irudiak proiektatuko ditu azterketan esandakoak bere iPadean idatziz eta proiektuaren erakutsiz. |

| |
|---|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 8. JARDUERA: ekosistemari buruzko irudiak egiten 2 |
| Jardueran lortu beharreko helburua : <ul style="list-style-type: none">• Irudietan LERROAK eta KOLOREAK adierazpen helburuak lortzeko modu esanguratsuan lantzea, azken bi jardueretan ikasi ditugun edukiak aplikatuz. |
| Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa : <p>Proiektua burutzeko 3. urratsarekin harremana duen jarduera da hau:</p> <p>3. Landutako informazioan oinarrituta, Afrikako Naturari buruz ikusizko proposamenak planifikatzea. Irudiotan LERROAK eta KOLOREAK bereziki landuko dira.</p> <p>Ikusizko baliabideak:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Lerro motak: zuzen horizontala, bertikala eta zehar eta lerro kurbatuak.2. Lerroen ezaugarriak: intentsitatea, zabalera eta kolorea.3. Lerroen bidezko esanahiak: armonia, kontrastea, lasaitasuna, mugimendua, norabidea eta abar.4. Kolore motak: hotzak, beroak eta neutroak.5. Koloreen bidezko esanahiak: armoniak eta kontrasteak. |
| Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik: <ul style="list-style-type: none">• Proiektuan egingo dugun irudia oinarritzko baliabide hauetan oinarrituko denez, hauek ongi erabiltzeko azterketa ongi egitea beharrezkoa dugulako. |
| Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak): <p>Lau kideko taldeetan burutuko dugu jarduera. Ikasle bakoitzak taldean adostutako mezua adierazteko irudiak landuko ditu. Irudiaren atal desberdinak (orografia, flora, fauna eta abar) taldeka adostuko dute ikasleek.</p> |
| Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak): <p>iPada: Safari aplikazioa eta wifirako konexioa. PicsArt aplikazioa eta Adonit JotPro arkatx digitalak. Ikasgelako inprimagailua ikasleen irudi digitalak inprimatzeko. Orri zuriak, arkatxak eta koloretako margoak.</p> |

Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK

9. JARDUERA: horma – irudien mezuak finkatzen eta diseinua adosten

Jardueran lortu beharreko **helburua**:

- **Talde txiki bakoitzeko irudiaren mezuan oinarrituz, horma – irudia bakoitzaren mezu orokorrak zehaztea.**
- **Horma – irudi hauen diseinu orokorrak eta talde bakoitzak landu behar duen irudi zatiaren diseinuak egitea.**
- Irudietan LERROAK eta KOLOREAK adierazpen helburuak lortzeko modu esanguratsuan lantzen jarraitzea.

Jardueran landuko diren **edukiak** eta egin beharreko **lana – ariketa**:

Proiektua burutzeko 3. eta 4. urratsarekin harremana duen jarduera da hau:

3. Landutako informazioan oinarrituta, Afrikako Naturari buruz ikusizko proposamenak planifikatzea. **Irudiotan LERROAK eta KOLOREAK bereziki landuko dira.**
4. Planifikatutako sormen prozesua gauzatzea Afrikako Naturari buruz irudien bitartez iritzia emanez.

Ikusizko baliabideak:

1. Lerro motak: zuzen horizontala, bertikala eta zehar eta lerro kurbatuak.
2. Lerroen ezaugarriak: intentsitatea, zabalera eta kolorea.
3. Lerroen bidezko esanahiak: armonia, kontrastea, lasaitasuna, mugimendua, norabidea eta abar.
4. Kolore motak: hotzak, beroak eta neutroak.
5. Koloreen bidezko esanahiak: armoniak eta kontrasteak.

Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik:

- Proiektuan egingo ditugun horma – irudiak diseinu hauetan oinarrituko direnez, jarduera azken emaitza lortzeko erabakigarria izango delako.
- Ikasleek euren lanaren emaitza aurreikusten hasten direlako.

| |
|---|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 9. JARDUERA: horma – irudien mezuak finkatzen eta diseinua adosten (jarraipena) |
| Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketako kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak): Lau kideko talde bakoitzeko koordinatzaileak irakaslearekin elkartuta: <ol style="list-style-type: none">1. Talde handi bakoitzaren mezu orokorra adostu eta zehazteko eta irudiaren egitura diseinatzeko.2. Talde bakoitzak irudi handirako egingo duen irudiaren zatia adostu eta zehazteko. Irakaslea eta koordinatzaileen artean erabakitakoa osoko bileran azalduko da ikasleen ekarpenak eta zalantzak kontuan izanik. Ondoren, aurreko bileran erabakitakoa oinarrituz, koordinatzaile bakoitzak bere taldean burutuko den lana gidatuko du. Talde bakoitzak talde handian adostutako mezua adierazteko irudiak landuko ditu, bi gai hauek kontuan izanik: <ul style="list-style-type: none">• Irudiaren gaia: ekosistemaren ezaugarriak (orografia, flora, fauna eta abar) adieraztea.• Irudia egiteko ikusizko baliabideak: lerroak eta koloreak. Talde bakoitzeko kideek lan banaketa euren artean adostuko dute. |
| Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak): iPada: Safari aplikazioa eta wifirako konexioa. PicsArt aplikazioa eta Adonit JotPro arkatx digitalak. Ikasgelako inprimagailua ikasleen irudi digitalak inprimatzeko. Orri zuriak, arkatzak eta koloretako margoak. DIN A3 neurriko orriak talde handi bakoitzaren irudien diseinuak egiteko. |

| |
|---|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 10. JARDUERA: irudien mezuak azaltzen eta ikusizko baliabideen erabilera arrazoitzen |
| Jardueran lortu beharreko helburua: <ul style="list-style-type: none">• Lau kideko talde bakoitzak bere irudiaren mezua azalduko du Showbien proposatutako ereduari jarraituz.• Talde bakoitzaren irudiaren azalpenean horma – irudiaren mezua kontuan izatea.• Showbieko 2. ariketa taldeka egitea.• Irudian LERROAK eta KOLOREAK adierazpen helburuak lortzeko modu esanguratsuan azaltzea. |
| Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa: <p>Proiektua burutzeko 3. urratsarekin harremana duen jarduera da hau:</p> <p>3. Landutako informazioan oinarrituta, Afrikako Naturari buruz ikusizko proposamenak planifikatzea.</p> <p>Irudiaren planifikazioa egiten jakitea, erabilitako ikusizko baliabideak sailkatuz eta azalduz norberaren irudiak sortzerakoan adierazpen eta komunikazio baliabide bezala era egokian erabiltzeko. Irudien planifikaziorako edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Irudiaren mezua eta efektuak.• Erabilitako ikusizko baliabideen sailkapena, motak eta hauen ezaugarriak.• Ikusizko baliabideak zer, nola eta zertarako erabili nahi diren arrazoitzea. |
| Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik: <ul style="list-style-type: none">• Proiektuan egingo ditugun irudien helburuak jarduera honetan osatutako dokumentuan zehaztuko ditugulako.• Ariketa honek ikasleei euren lanaren helburu zehatza ikusten laguntzen dielako. |

| |
|---|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 10. JARDUERA: irudien mezuak azaltzen eta ikusizko baliabideen erabilera arrazoitzen (jarraipena) |
| Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak): Lau kideko taldeetan burutuko dugu jarduera, dokumentuan osatu beharreko atal desberdinak kideen artean adostuz: <ul style="list-style-type: none">• Irudiaren mezua eta efektuak.• Erabilitako lerro motak eta hauen ezaugarriak.• Erabilitako kolore motak eta hauen ezaugarriak.• Ikusizko baliabideak zer, nola eta zertarako erabili nahi diren arrazoitzea.• Dokumentua Showbie aplikaziora bidaltzea (idazkaria). |
| Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak): iPada: Safari aplikazioa eta wifirako konexioa. Showbie aplikazioa. 2. ariketa egiteko, AFRIKAKO EKOSISTEMAK IRUDIAREN AZALPENA dokumentua Showbie aplikazioan eta wikian dute ikasleek. Irakasleak irudiak eta beharrezkoak proiektatuko dituzte bere iPadean irudiak markatuz eta proiektazioan erakutsiz. Proiektorea eta pantaila. Irudiak egiteko PicsArt aplikazioa eta Adonit JotPro arkatza digitalak. Ikasgelako inprimagailua ikasleen irudi digitalak inprimatzeko. Orri zuriak, arkatzak eta koloretako margoak. |

| |
|--|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 11. JARDUERA: ekosistemari buruzko irudiak egiten 3 |
| Jardueran lortu beharreko helburua : |
| <ul style="list-style-type: none">• 4 kideko talde bakoitzak horma – irudirako egin behar duen irudia marraztu eta margotzea:<ul style="list-style-type: none">○ Taldeko irudiaren mezua adierazteko helburuarekin.○ Horma – irudiaren mezua orokorraren atal bat dela kontuan izanik.○ Irudietan LERROAK eta KOLOREAK adierazpen helburuak lortzeko modu esanguratsuan lantzen jarraitzea. |
| Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa : |
| Proiektua burutzeko 4. eta 5. urratsarekin harremana duen jarduera da hau: |
| <ol style="list-style-type: none">4. Planifikatutako sormen prozesua gauzatzea Afrikako Naturari buruz irudien bitartez iritzia emanaz.5. Sormen prozesuan zehar egindakoak ebaluatzea, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuz eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginez. |
| Ikusizko baliabideak: |
| <ol style="list-style-type: none">1. Lerro motak: zuzen horizontala, bertikala eta zehar eta lerro kurbatuak.2. Lerroen ezaugarriak: intentsitatea, zabalera eta kolorea.3. Lerroen bidezko esanahiak: armonia, kontrastea, lasaitasuna, mugimendua, norabidea eta abar.4. Kolore motak: hotzak, beroak eta neutroak.5. Koloreen bidezko esanahiak: armoniak eta kontrasteak. |
| Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik: |
| <ul style="list-style-type: none">• Proiektuan egingo ditugun horma – irudiak diseinu hauetan oinarrituko direnez, jarduera azken emaitza lortzeko erabakigarria izango delako. Irudia sortzearen prozesuan, proiektuaren 5. urratsak garrantzi nabaria duelako: <i>sormen prozesuan zehar egindakoak ebaluatzea, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuz eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginez.</i>• Ikasleek euren lanaren emaitza aurreikusten hasten direlako. |

Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK

11. JARDUERA: ekosistemari buruzko irudiak egiten 3 (jarraipena)

Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak):

Lau kideko taldeetan burutuko dugu jarduera. Ikasle bakoitzak taldean adostutako mezua adierazteko irudiak landuko ditu. Irudiaren atal desberdinak (orografia, flora, fauna eta abar) taldeka adostuko dute ikasleek.

Horma – irudi berdina egingo duten taldeek euren artean koordinatu beharko dute azken emaitza orokorra aurreikusteko eta beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko.

Erabiliko diren **baliabideak** (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak):

iPada: Safari aplikazioa eta wifirako konexioa.

PicsArt aplikazioa eta Adonit JotPro arkatx digitalak. Ikasgelako inprimagailua ikasleen irudi digitalak inprimatzeko.

Orri zuriak, arkatzak eta koloretako margoak.

DIN A3 neurriko orriak talde handi bakoitzaren irudien diseinuak egiteko.

| |
|--|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 12. JARDUERA: horma – irudiak egiten 1 |
| Jardueran lortu beharreko helburua : |
| <ul style="list-style-type: none">• Taldeetako ikasle batzuek horma – irudiaren diseinua marraztuko dute aurreko jardueretan egindakoari jarraituz:<ul style="list-style-type: none">○ Horma – irudiaren mezua adierazteko helburuarekin.○ Talde bakoitzeko irudiaren mezua adierazteko helburuarekin.○ Aurreko jardueran egindako ebaluazioan, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuz eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginez. |
| Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa : |
| Proiektua burutzeko 4. eta 5. urratsarekin harremana duen jarduera da hau: |
| <ol style="list-style-type: none">4. Planifikatutako sormen prozesua gauzatzea Afrikako Naturari buruz irudien bitartez iritzia emanez.5. Sormen prozesuan zehar egindakoak ebaluatzea, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuz eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginez. |
| Ikusizko baliabideak: |
| <ol style="list-style-type: none">1. Lerro motak: zuzen horizontala, bertikala eta zehar eta lerro kurbatuak.2. Lerroen ezaugarriak: intentsitatea, zabalera eta kolorea.3. Lerroen bidezko esanahiak: armonia, kontrastea, lasaitasuna, mugimendua, norabidea eta abar.4. Kolore motak: hotzak, beroak eta neutroak.5. Koloreen bidezko esanahiak: armoniak eta kontrasteak. |
| Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik: |
| <ul style="list-style-type: none">• Proiektuan egingo ditugun horma – irudiak diseinu hauetan oinarrituko direnez, jarduera azken emaitza lortzeko erabakigarria izango delako. Irudia sortzearen prozesuan, proiektuaren 5. urratsak garrantzi nabaria duelako: <i>sormen prozesuan zehar egindakoak ebaluatzea, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuz eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginez.</i>• Ikasleek euren lanaren emaitza aurreikusten hasten direlako. |

| |
|---|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 12. JARDUERA: horma – irudiak egiten 1 (jarraipena) |
| Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak): Lau kideko taldeetan burutuko dugu jarduera. Ikasle bakoitzak taldean adostutako mezua adierazteko irudiak landuko ditu. Irudiaren atal desberdinak (orografia, flora, fauna eta abar) taldeka adostuko dute ikasleek. Horma – irudi berdina egingo duten taldeek euren artean koordinatu beharko dute azken emaitza orokorra aurreikusteko eta beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko. |
| Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak): iPada: Safari aplikazioa eta wifirako konexioa. PicsArt aplikazioa eta Adonit JotPro arkatx digitalak. Ikasgelako inprimagailua ikasleen irudi digitalak inprimatzeko. Orri zuriak, arkatzak eta koloretako margoak. DIN A3 neurriko orriak talde handi bakoitzaren irudien diseinuak egiteko. Horma – irudiak marraztu eta margotzeko: 50 x 65 cm-ko neurriko kartoi mehe zuriak. |

| |
|---|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 13. JARDUERA: horma – irudiak aurkezten eta proiektuaren balorazioa – hausnarketa egiten |
| Jardueran lortu beharreko helburua : |
| <ul style="list-style-type: none"> • Talde bakoitzeko irudiak bukatuta daudenean, irudiok elkartu eta horma – irudiak osatzea. |
| Jardueran landuko diren edukiak eta egin beharreko lana – ariketa : |
| <p>Proiektua burutzeko 6. urratsarekin harremana duen jarduera da hau:</p> <p>6. Lortutako emaitzak erakustea eta mundura zabaltzea.</p> <p>Ikasleek proiektuaren balorazioa eta hausnarketa taldeka egingo dute. Ondoren, talde osoko bileran iritziak partekatuko dira, hurrengo proiektuari begira hobekuntza neurriak lortzeko asmoz.</p> |
| Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik: |
| <ul style="list-style-type: none"> • Proiektuaren azken urratsa delako eta prozesuan zehar landutako azken emaitza azken emaitza gure eraikineko beste ikasle eta irakasleei erakusten diogulako: <i>lortutako emaitzak erakustea eta mundura zabaltzea.</i> |
| Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak): |
| <p>Talde osoko bileran burutuko dugu jarduera. Horma – irudi berdinen atalak egin duten taldeek euren artean koordinatu beharko dute azken emaitza orokorra lortzeko.</p> <p>Lau kideko taldeetan balorazioa eta hausnarketa egiteko. Ondoren talde osoko bileran iritziak partekatzeko.</p> |
| Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak): |
| <p>iPada: horma – irudien eta prozesuaren azken urratsaren argazkiak egiteko. Orri zuriak, arkatzak eta koloretako margoak.</p> <p>DIN A3 neurriko orriak talde handi bakoitzaren irudien diseinuak egiteko.</p> <p>Talde bakoitzaren horma – irudia osatuta eta hauek elkartu eta lotzeko zelaia.</p> <p>Kolore desberdinetako post-it itsaskiak eta neurri handiko kartoi meheak balorazioa eta hausnarketaren emaitzak aurkezteko.</p> |

Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK

14. JARDUERA: proiektua argitaratzea, erakusketa egitea eta LHko 5. mailako ikasleekin bisita gidatua egitea

Jardueran lortu beharreko **helburua**:

- **Proiektuan zehar egindako lana erakutsi, zabaldu, azaldu eta partekatzea hainbat modutan: Ikastolan (erakusketa) eta Interneten (Plastika arloko plataformetan: wikian eta issuun).** Argitaratzeko aukera aztertuko dugu.
- **Proiektuaren erakusketa egitea** gure etapako ikasle eta irakasleentzat. LHko 5. mailako ikasleak erakusketara gonbidatu **bi etapan arteko harremana eta komunikazioa lantzeko.**

Jardueran landuko diren **edukiak** eta egin beharreko **lana – ariketa**:

Proiektua burutzeko 6. urratsarekin harremana duen jarduera da hau:

6. Lortutako emaitzak erakustea eta mundura zabaltzea.

LHko 5. mailako talde desberdinei erakusketa azaltzeko DBHko 3. mailako ikasleak talde txikitan antolatuko dira. Erakustaldian eduki hauek azalduko dira.

- Afrikan dauden ekosistema motak eta hauen ezaugarriak: orografia, fauna, flora, eguraldia eta bestelakoak.
- Ekosistema horietan gertatzen dena eta irudietan azaltzen diren ekintzak: irudiaren mezua eta efektuak.
- Irudiaren mezua eta efektuak adierazteko erabilitako oinarrizko ikus – elementuak: lerroak eta koloreak.
- LHko 5. mailako ikasleen zalantzak, iritzia eta hausnarketa bideratzea.

Jarduera hau proiektuaren erronka lortzeko baliagarria izango da arrazoi hauengatik:

- Proiektuan burututako lanaren erabilera praktikoa eta akademiko – didaktikoa frogatuko dugulako.
- LHko 5. mailako ikasleek guk egindako lanarekin eurek behar dituzten edukiak ikasten dituztelako.

| |
|--|
| Proiektua: AFRIKAKO EKOSISTEMAK |
| 14. JARDUERA: proiektua argitaratzea, erakusketa egitea eta LHko 5. mailako ikasleekin bisita gidatua egitea (jarraipena) |
| Metodologia (Taldekatzeko mota, Ikasketa kooperatiboaren egitura, Pentsamendu trebetasunak): Irakasleak elkartuko ditu ikasle taldeen lanak: ikerketa lanak, azalpen dokumentuak, prozesuan zehar egindako argazkiak, ikasleen zirriborroak eta horma – irudiak. Ikasleen lanarekin eta dugun espazioa kontuan izanik erakusketa antolatu eta muntatuko du. |
| Erabiliko diren baliabideak (iPada, aplikazioak, tresnak eta materialak): Erakusketa gunea Plastika gelaren inguruan: 5 – 6 kortxo eta txintxetak irudiak lotzeko. Taldea guztien lana: <ul style="list-style-type: none">• Ikerketa lanaren dokumentuak, ekosistema desberdinen ezaugarriak azalduz. (Showbieko 1. ariketa).• Irudi desberdinen planifikazio dokumentuak. (Showbieko 2. ariketa). Ikusizko baliabideak zer, nola eta zertarako erabili nahi diren azalduz.• Irudiak egiteko zirriborroak: orrietan marraztu eta margotutakoak eta PicsArt aplikazioan landutakoak.• Horma – irudiak. |

4. PROIEKTUAREN HEDAPENA

Proiektua ikuslegoari erakusteko proiektuan landutakoari buruz erakusketa bat egingo dugu, egindako lana DBH osatzen dugun guztioi erakusteko. Erakusketa hau Plastika gelaren inguruan antolatuko dugu, Afrikako ekosistemei buruz idatziz eta mapak bezalako irudien bitartez informazioa emanaz eta sortutako ekosistema guztien irudiak erakutsiz. Azken emaitzetara ailegatzeko bidean egindako lana ere erakutsi nahi dugu, ikerketa lana, lerro eta koloreei buruzko informazioa, zirriborroak, frogak, eskemak eta abar. Sortutako emaitzak Plastika arloko <https://plastikagela.wikispaces.com/> wikiaren bitartez ere erakutsiko dugu.

Lehen Hezkuntzako 5. mailan, Ingurune arloan *ekosistemak* gaia lantzen dutenez, egindako erakusketa eta lortutako emaitzak eurekin partekatzea proposatuko diegu LHko ikasle eta irakasleei. Erakusketa bisitatu ahal izango dute DBHko ikasleen azalpenekin, eta behar bada, jarduerak ere antola zitezkeen.

5. PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Ikasleei proiektua azaltzeko, plastikagela wikiko *Ikasleen lanak* atalean dauden irudi batzuk erakutsi nizkien. Duela ikasturte batzuetako ikasleek lerroak eta koloreak erabiliz egindako irudiak ikasgelan ikusi eta aztertu genituen. Ikusi eta aztertu genituen irudien gaiak sailkatu genituen baita.

Era horretako irudiak egitea proposatu nien ikasleei, lerroak eta koloreei garrantzi berezia emanaz. Irudien gaia Afrika izango zela esan nien ikasleei.

Irudiak egiteko ZER, NOLA eta ZERTARAKO planteamendua azaldu nien:

- ZER: Afrikari buruzko irudiak egingo ditugu.
- NOLA: lerroak eta koloreak erabiliz.
- ZERTARAKO: Afrikako Naturari buruz dugun iritzia adierazteko.

Proiektua bere osotasunean ulertzeko, landuko diren gai desberdinak azaldu nituen: helburuak, edukiak, ebaluazioa, jarduerak, metodologia, baliabideak, erronka, aplikazioak, hedapena eta abar, ikasleek ikuspegi osoa izateko dute eta ideia hobeto ulertzeko.

Afrika lau ekosistemetan sailkatu ondoren, basamortua, ibaia eta deltak, oihana eta sabana, ikasle talde bakoitzak ekosistema bat aukeratu zuen.